



BEHAKETA-JARDUERA: Erantzun marrazki bidez

Jarduera honetan ikasleek beldar bat behatu eta marraztu beharko dute, baina kasu honetan behaketa gidatua izango da. Izan ere, ikasleek marrazketaren bidez erantzun beharko diete jarduera honetan planteatutako galderari:

- Nola mugitzen da beldar hau?
- Zenbat hanka ditu?
- Zer zentzumen dituela esango zenuke? Identifika al dezakezu beldarraren zentzumen-organo bakoitza?
- Beldarra laztanduko bazenu, nolakoa izango litzateke haren azala? Leuna, likatsua, iletsua, zurruna, latza...?
- Nola uste duzu elikatzen direla?
- Ze tamainakoa da? Saiatu errealitateko zerbaitekin konparatzen: borragoma batekin edo txanpon batekin, adibidez.
- Zenbat gorputz atal identifika diezaiokezu?
- Emea edo arra den identifikatzerik baduzu?
- Koloreari dagokionez, zer koloretako margo edo arkatza erabiliko zenuke?

Behin jarduera hori amaituta, ikasleen hausnarketa eta imajinazioa lantzeko honako galdera hauek ere irudi bidez adierazteko eskatuko diegu:

- Beldar hau egunen batean tximeleta eder bihurtuko da. Beldarraren itxurari erreparatuta, zer koloretako tximeleta bihurtuko dela esango zenuke?
- Zenbat hanka izango ditu tximeletak?
- Beldarraren tamainarekin alderatuta ze tamaina izango du tximeletak?

*Galdera horiei erantzuteko, ikasleek euren erantzuna marrazteaz gain justifikatu beharra izango dute. Adibidez, "nik uste dut laranja kolorekoa izango dela".



GELAKO MATERIALAK

Marrazkiak egiteko, nahikoa izango da ikasleek gelan duten materiala.

Aukera izanez gero, erreferentzia gisa benetako beldarrak behatu daitezke ikasgelan. Aukerarik ezean, eranskinetako irudiak erabil daitezke.

KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Galderen bidez erreferentzia-objektua behatzeko eta ezagutzeko jakin-mina pizteaz gain, informazio ezberdina irudi bidez komunikatzeko gaitasuna landu nahi da, ikasleen alfabetatze bisuala hobetuz, hau da, hizkuntza bisuala idazteko eta irakurtzeko gaitasuna.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

-Galderen bidez aurrean duten izakia gehiago eta hobeto behatzea, behaketa-teknikak landuz.

-Behatutakoa marrazki bidez adierazteko ahalegina egitea. Kasu honetan, ikasleak galdera zehatzen bat erantzuteko zailtasuna izango balu edo zerbait argi adierazi ez duela pentsatuko balu, hitzak ere erabiliko lituzke, esan bezala marrazketa behaketa sustatzeko teknika baita kasu honetan, ez artelan bat sortzeko modua.